

# MEMORIA

*2012*



**Bergarako Udala**  
UDALTZAINGOA

Memoria honen bidez azaldu nahi da Bergarako Udaltzaingoak 2012an burututako lanen laburpena. Bertan ikus ditzakezue ezagunak eta hain ezagunak ez diren eguneroko betebeharrak.

Herritarren gertuen lana egiten duen polizia izateak ingurua hobeto ezagutzeko aukera ematen digu eta horregatik arazo desberdin askotan parte hartzeko ahalbidea zabaltzen zaigu; askotan arazo “txikiak” izanda baina herritarrek “norbere arazoa” bezala barneratzen dituzten horietakoak.


Alde batetik ematen diren zerbitzuen aniztasuna eta beste aldetik langilegoaren kopuru murrizta kontutan harturik espezialidadeak garatzea ezinezkoa dela suertatzen zaigu.

Dena den herritarrei egunero zerbitzu on bat ematen saiatzen gara, eskura dauzkagun baliabideak erabiliz.

Beti bezala espero dugu eskaintzen dugun zerbitzua bere neurrian baloratuko duzuela.

Udaltzainburua

# ORGANIGRAMA






***LANGILEGOA  
ETA  
FUNTZIONAMENDUA***




## LANGILEGOA ETA FUNTZIONAMENDUA

Bergarako Udaltzaingoa ofizial-ondoko nagusi batek, udaltzain administrari batek, hiru agente lehengok, eta 14 agentek osatu dute 2012. urtean.



## ADINEN ARABERAKO SAILKAPENA

Adina	Zbk.	Portzent.
25-30	2	% 10
30-35	8	% 42
36-40	1	% 5
41-45	1	% 5
46-50	3	% 16
50-55	3	% 16
55-60	1	% 5




Adinen araberako sailkapenean multzo bi nabarmentzen dira: 25 eta 35 urteko bitartekoa (% 53), eta bestea 46 eta 55 urte bitartekoa (% 37).

Sexuaren arabera hiru emakume eta 16 gizon dira.

Aipagarria da 35 urte baino gazteagoak 10 agente izatea, honek azken urteetan lanpostu berriak sortu direla adierazten du eta honek jende gaztea ekarri duela lan taldera, adin nagusikoak jubilatatu direlarik.

## IKASKETEN ARABERAKO SAILKAPENA

-Unibertsitateko lizentziatuak:	<b>5</b>	% 265
-Ertaineko ikasketak:	<b>13</b>	% 68
-Oinarrizko ikasketak:	<b>1</b>	% 5




## EUSKERA MAILA

-Dakitenak:	<b>19</b>	% 100
-------------	-----------	-------

### Hizkuntz eskakizunak

Derrigortuak	<b>19</b>	% 100
Egiaztatuak	<b>19</b>	% 100

4. hizkuntz eskakizuna	<b>2</b>	% 10
3. hizkuntz eskakizuna	<b>6</b>	% 30
2. hizkuntz eskakizuna	<b>11</b>	% 60





## LANERAGABEZIA

2012. urtean laneragabezia 1.960 ordukoa izan da, lan egin behar diren orduen %6,48 izanik, eta ondoan azaltzen den moduan banatuta:


BAJAK	BAIMENAK	GUZTIRA
1.408	552	1.990
% 71,83	% 28,16	% 100

Lan egin beharreko orduak: **1.592 X 19 = 30.248**



Datu hauei buruzko azken 6 urteko gora beherak honako hauek izan dira:

	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
<b>Galdutakoak</b>	3.616	4.797	3.914	4.037	5.498	3232,5	1.960
<b>Bajak</b>	1.656	2.349	1.472	1.501	2.456	2132	1.408
<b>Baimenak</b>	368	856	850	944	1.450	345,5	552



2012an galdutako orduak % 41,20a dira 2010ko urtekoekin konparatuta.




Gaixotasunengatik hartutako baja gehien suertatu diren hilabeteak maiatza (368 ordu  $\Rightarrow$  26,14a%), ekaina (296 ordu  $\Rightarrow$  21,02a %), apirila (224 ordu  $\Rightarrow$ 15,90a%), urtarrila (176 ordu  $\Rightarrow$  12,5%) eta otsaila (88 ordu  $\Rightarrow$ 6,25a %) izan dira, hauen artean % 81,82a metatuz (1.152 ordu).

Bestalde, gutxien izan diren hilabeteak iraila eta urria izan dira (0 ordu).

Baimena kontzeptuaren barruan senideen gaixoaldi larri edo heriotzagatik , norbere ezkontzagatik, semealaben jaiotzagatik, ikasketengatik (azterketak) edo ordaindu gabeko norbere zoizko baimenak sartzen dira.


Laneragabezia moduan bakarrik baja kontzeptuaren barruan jasotako orduak kontutan hartzen baditugu **2012ko laneragabeziko indizea % 4,6koa** izan dela ateratzen zaigu, iazkoarekin alderatuta 2,09 puntu gutxiago izanik.



## APARTEKO ORDUAK

2012an guztira 118 aparteko ordu egin dira, langilegoak bete behar dituen ordu guztien % 0,39 izanik. Ordu hauek iraileko San Martin jaietan eta azaroan izandako hauteskunde orokor egunean sartutakoak dira gehienak.


Sartu diren aparteko ordu guztiak dirutan ordaindu dira.



Azken 6 urteetan eginiko aparteko orduen kopurua azterturik ikus dezakegu orduen kopurua asko gutxitu dela azkeneko lau urteetan.

Honen arrazoi nagusia, Udaltzaingoaren egutegi berrian aurkitu dezakegu, non urteko egun guztietan ematen dugun zerbitzua, egun guztiak lan egutegi barruan daudelarik. 2012ko kopurua igo da azaroan egindako hauteskundegatik, urte hasieran programatu gabe zeudelako eta azkenean aparteko orduekin bete behar izan dugulako.

2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
513,05	731,58	443,95	61,5	58,5	160	118




- **Irratiak:** 2 MOTOROLA GM350 basea.  
3 MOTOROLA GM 350 mugikorra.  
10 MOTOROLA GP340 eskukoak.
  
- **Ibilgailuak:** Opel Zafira 5469-GKS  
Ford Ranger pick-up 3399-BDZ  
Nissan Grua 8900-CPK
  
- **Bestelako materiala:** 5 VAMA L-400 linterna.  
2 VAMA L-500 linterna.  
4 A-B-C-E hauts lehorreko 9 kiloko itzalgailu.  
2 pala.  
20 seinalizaziorako bastidore.  
12 peto erreflaktario.  
1 animaliak eramateko atoina.  
1 INDEXEL mikrotxip irakurgailua.  
20 pare grilete.  
20 defensa teleskopiko eta 6 gogorrak Ares II.  
20 ebakien aurkako eskularru.  
20 eskuko linterna txiki.  
20 multiherramienta  
20 defentsarako spray.  
1 AT 100 prismetikoak.  
1 BRUEL & KJAER zarataneurgailua.  
7 hesi txiki.  
8 plastikozko hesiak.  
2 hesi handi  
2 ROLATAPE neurtzeko gurpila.  
20 seinalizaziorako kono.  
2 Olympus argazki kamara digitala.  
2 PC.  
Norberen materiala (uniformea...)  
[2 DRÄGER arnasa hartzeko ekipo autonomo.](#)  
4 ibilgailuak mugitzeko karroak (Foima)  
1 katu hidraulikoa (2 Tm)  
[1 TELIJET animaliak lotatzeko pistola hipodermikoa.](#)  
6 zepo ibilgailuak ibilgitzeko.  
4 ebakien aurkako txaleko  
CDP 8100 alkoholimetroa  
6 argi buiak  
Txakurrak harrapatzeko lazoa  
1 PHILIPS desfibriladorea.

## FUNTZIONAMENDUA


---

2012. urtean, Udaltzaingoak eskainitako zerbitzua egunero 16 ordukoa izan da, astelehenetik igandera arte, gauez lanik ez duelarik egiten, herriko jaietan eta ospakizun berezietan izan ezik. Betetzen duen ordutegia da astelehenetik ostirala arte goizeko 06.00etatik gaueko 22.00 arte, 06.00-14.00 eta 14.00-22.00 ordutegiak tartekatuz. Larunbatetan eta igandeetan ere 06.00etatik 22.00ak arte baina 12 orduko txandak egiten: 06.00etatik 18.00ak arte eta 10.00etatik 22.00ak arte. Herriko jaietan eta ospakizun berezietan 24 orduko zerbitzuak ematen dira.

Txandak 5 udaltzain eta agente lehengo batez osaturik daude (talde batean 4 agente), eta egunean 8 orduko lan ihardunak betetzen dituzte, larunbatetan eta igandeetan 12 ordukoak, komenioan ezarritako urteko 1.592 orduko lan-egutegia osatuz. Astebarruko atsedanak kontutan harturik teoriarik 5 udaltzain eta agente lehengo batekin osatzen dira asteko txandak.



# TRAFIKO



## EGUNEROKOAK

---

Puntu zehatz eta ordu jakin batzuetan emandako zerbitzuak dira egunerokoak, batez ere ikastetxe eta lantegietako sarrera eta irteera orduetan, eta leku jakin batzuetan ordu puntetan emandakoak.

Ikastetxetako sarrera eta irteera orduetan zaintzen diren puntuak honako hauek dira:

- Matxiategi-Boni Laskurain.
- Bidekurutzeta (Espoloia)
- Bidekurutzeta (R. M. Lili)
- Harrizuri.
- San Martin Agirre plaza.(sarreretan)
- Ibargarai 8 (irteeretan)

Lantegietako sarrera eta irteera orduetan zaintzen diren puntuak honako hauek dira:

- Ibargarai - Zurradero
- GI-627 eta GI-632 errepideen gurutzea (bariantea).

Zerbitzu bereziak ematen dira ezinduen garraioetarako egunero Basarte eta Zabalotegi kaleetan, pasabide estuak direlako eta mikrobusak arazoak izaten dituztelako.



## KIROL FROGAK ETA BESTE BATZUK

2012an herri barruko errepidetatik pasatzen diren kirol frogei ibilbidearen on iritzia eman zaie, guztira 29 izanik.

Urte honetan kirol frogarik eta ospakizunik garrantzitsuenak, herriko kaleetatik beren ibilbideak guztiz Udaltzaingoak zaindu dituenak hain zuzen, honako hauek izan dira:

- 2012-01-05 Erregeen kabalgata.
- 2012-02-21 Aratusteak
- 2012-03-31 Erramu Zapatuko Feria
- 2012-03-25 Gorlako igoera (txirrindulariak)
- 2012-04-04 Euskal Herriko itzulia (txirrindulariak)
- 2012-05-19 Gorlako igoera (kotxeak)
- 2012-06-09 San Antonio saria (txirrindulariak)
- 2012-05-27 Pentekoste saria (txirrindulariak)
- 2012-06-16 Osintxuko emakumeen proba (txirrindulariak)
- 2012-07-07 San Fermin (Xipizaro)
- 2012-09-15 Nagusien San Martineko danborrada
- 2012-09-16 Umeen San Martineko danborrada
- 2012-09-16 San Martin saria (txirrindulariak)




## ISTRIPUAK

Herri barruko kaleetan izandako istripuak, Udaltzaingo honek istripu hauetan parte hartu duelarik, 2012an guztira 53 izan dira, iazko datuekin konparaketa eginez %3,92a gehiago izanik. Hauetatik 42 istripu txostenak izan dira eta 11 epaitegietara zuzendutako atestatuak.


Aurreko urtean izandako istripuen kopuruarekin konparaketa eginez ikusten dugu aurten istripu gehiago izan direla, baina dena den azken urteotako kopuruak ikusita, esan behar da istripuen kopurua gutxi aldatzen dela urte batetik bestera. Honen arrazoia aztertzeke orduan, aipatu genezake abiadura murrizteko bandak eta oinezko pasabide altxatuak jarri direla herriko puntu askotan, eta honek ibilgailuen abiadura murriztea ekartzen duela.

2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
<b>78</b>	<b>72</b>	<b>76</b>	<b>67</b>	<b>59</b>	<b>51</b>	<b>53</b>



Izandako istripuetatik 49 ibilgailuen arteko topaketak izan dira eta 4 oinezkoen harrapaketa.


Istripu gehienetan kalte materialak besterik ez dira sortu (38), guztira 13 lagun zaurituak izan direlarik (11 zauritu arinak eta 2 larria), azken hauek 9 istripuetan.





Istripuak suertatu diren urteko hilei dagokienez martxoa (10), apirila (8) eta ekainaztaila-urria (6) izan dira istripu gehien izandakoak, eta gutxienak urtarrila (2), abuztua (1) eta abendua (1) izan dira.

Urta.	Otsa.	Mart.	Apir.	Maia	Ekai.	Uzta.	Abuz	Irai.	Urria	Aza.	Aben
<b>2</b>	<b>4</b>	<b>10</b>	<b>8</b>	<b>3</b>	<b>6</b>	<b>6</b>	<b>1</b>	<b>3</b>	<b>6</b>	<b>3</b>	<b>1</b>



Asteke egunei dagokienez, istripu gehien izan diren egunak astelehena (14), azteazkena (10) eta osteguna (10) izan dira eta gutxien izan dena igandea (2) izan da.

Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
<b>14</b>	<b>4</b>	<b>10</b>	<b>10</b>	<b>6</b>	<b>7</b>	<b>2</b>

Istripuak zein kaletan suertatu diren begiratuta ikusten dugu istripu gehien izan diren kaleak honako hauek izan direla:

Matxiategi	<b>5</b>
Irizar	<b>4</b>
Ibargarai	<b>3</b>
Aranerreka	<b>3</b>
Mintegi	<b>3</b>
Ibarra	<b>2</b>
Zubieta	<b>2</b>
Leizeaga	<b>2</b>
Urteaga	<b>2</b>


Konprobatu daitekeenez oso sakabanatuta daude, beraz ez da puntu beltzik somatzen aurreko urteetan izan zen bezala, Ibargarai kalean pilotzen baitziren istripu gehienak.

## ISUNAK

Indarrean dagoen trafikoari buruzko arautegia hausteagatik 7.074 isun jarri dira, iazko datuekin konparatuta % 2,03 gutxiago izanik.


TAO sistema indarrean egon da urte osoan eta isun asko eman dira horregatik (5.444 → % 76,46a), gainontzeko trafiko arau hausteak iazko mailan mantenduz (1.630 → %23,04a)

2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
<b>3.235</b>	<b>2.080</b>	<b>2.697</b>	<b>2.077</b>	<b>3.693</b>	<b>7.221</b>	<b>7.074</b>



Isun hauetatik 2.818 (% 39,84a) Bergarako biztanleei dagokie, gainontzeko 4.256 (% 60,16a) kanpoko gidariei dagokielarik.

Udaltzaingoak, jarritako isun guztiak tramitatzen ditu, guzti horrek 187.253 euro suposatzen dituelarik. Isun hauetatik, abenduaren 31n 4.396 (% 62,14) ordainduta zeuden, 85.529 euro izanik; 464 (% 6,56a) baliogabetuak izan dira, 20.205 euro izanik eta, azkenik, 2.038 (% 28,81) ordaindu gabe daude, 57.799 euro izanik.



## BERTAN BEHERA UTZITAKO IBILGAILUAK

2012. urtean, dagokion gestio administratiboa egin ondoren, kotxe bat erretiratu da bide publikotik eta zatitegira eraman dugu, eta beste 45 ibilgailu beraien jabeek erretiratu dituzte. Guztira 46 espediente hasi dira eta abenduaren 31n oraindik 10 espediente bukatzeko zeuden.



## DATU INTERESGARRIAK

2012ko urtarrilaren hasieran Bergarako erroldan 9.516 ibilgailu inskribaturik zeuden, iazko datuekin konparatuta % 0,64ko jeitsiera izanik, eta horrela sailkatuta:

-Turismo:	<b>7.903</b>
-Kamioiak:	<b>4171</b>
-Motozikletak:	<b>631</b>
-Ziklomotorrak:	<b>194</b>
-Traktoreak:	<b>173</b>
-Atoinak:	<b>178</b>
-Autobusak:	<b>20</b>

Azken urte hauetako datuak kontutan harturik ikusten dugu ibilgailuen kopuruak mantentzen direla.

2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
<b>9.035</b>	<b>9.279</b>	<b>9.437</b>	<b>9.438</b>	<b>9.471</b>	<b>9.577</b>	<b>9.516</b>



Biztanleko 0,54 turismo eta 0,65 ibilgailu dagokigu, eta 1,86 biztanleko turismo bana eta 1,56 biztanleko ibilgailu bana.

## TRAFIKO BURUZAGITZETIK BIDALITAKO ESKAERAK

- Prezinto aginduak: **5**
- Txosten eskaerak: **1**

# OBRAK ETA HIRIGINTZA




## OBRA BAIMENAK

---

2012an guztira 270 obra baimen eman ziren, aurreko urtearekin konparatuta % 2,53 gutxiago izanik.

Bi obra baimen desberdin daude: obra handia eta obra txikiak, obra handiak proiektu baten beharra dutenak izanik. Obra handiak egiteko 17 baimen eman ziren, eta obra txikiak egiteko, berriz, 253.



## ZARATA NEURKETAK

---

Arlo honetan aditu den teknikariari lagunduz 4 zarata neurketa egin dira, hauetatik bat taberna batean izan delarik, eta gainontzeko hirurak beste lokal desberdinetan.

Neurketa hauek beti gauzez egiten dira, 22.00ak eta 08.00ak bitartean.

# BESTE BATZUK



## **KALEZ KALEKO SALMENTA**

---

2012. urtean ekintza hau kalean zehar burutzeagatik 2 akta jaso genituen, bat urrian eta bestea abenduan, beraz, esan dezakegu saltzeko modu hori gure herrian desagertuz doala.

Bestalde Pentekoste, San Martzial eta San Martin Agirre jaietan kalean jartzen diren postuak ere kontrolatu eta kobratu egiten dira.

Merkatu txikia 2008. urtetik San Martin plazan kokatuta dago, eta bertan dauden 16 salmenta postuak kontrolatzen dira.

Oxirondoko azoka ere Udaltzaingoak kontrolatzen du: zabaldu, itxi, zamalanetarako ordutegia zaindu, libre dauden postuak kontrolatu, akatsak azaldu eta abar.

Askotan ekintza honekin nolabaiteko lotura daukan beste ekintza batzuk ere kontrolatzen saiatzen gara, hau da: eskaleak eta postulanteak. Azken hauei baimenik ez badaukate debekatu egiten zaie postulatzea, eta eskaleak herritik ateratzen saiatzen gara, nahiz eta kasu bietan lege aldetik ezin dela ezer egin.

## **LURZORU PUBLIKOAREN OKUPAZIOA**

---

Gai honi dagokionez obretako 220 kontenedore, eta 2.676 aldamioko eta obretako gaiez egindako lurzoru publikoaren okupazioa kontrolatu dira.

Aipatu behar dugu, 2012. urtean 30 egunetan kale mozketaren bat egin eta kontrolatu dugula.

Bestalde mahai eta aulkiez egiten den lurzoru publikoaren erabilpenari dagokionez 326 kontrol egin dira, hau da 42 tabernek egin dute mota honetako aprobetxamendua urtean zehar eta hilero kontrolatu izan dira. Kontrol hauen ondorioz 7 akta jaso dira baimenik gabe okupazioa egiteagatik edota baimendutako baino gehiago okupatzeagatik, eta beste bat baimendutako ordutegia ez errespetatzeagatik.

## **GALDUTAKO GAUZAK**

---

Galdutako gauzen sailean, batutako balio gutxiko gauzez gain (giltzak...) guztira 94 gauza erregistratu dira, hauetatik 48 (% 51,06a) beren jabeei bueltatu zaizkielarik.

Bertan erreklamatu gabe geratzen diren gauzak aurkitu dutenei itzultzen zaizkie bi urteko epea pasatu ondoren edota onegintza erakundeetara bidaltzen ditugu, batez ere arropa, jostailuak eta betaurrekoak.

## LOKALAK ZABALTZEA


- Zabalotegiko aretoa ↑ aurretik eskatuta.
- Maria Lagundiako jolas tokia ↑ egunero.
- Oxirondo azoka ↑ egunero.
- Udaletxea ↑ egunero.
- Agarre garaia ↑ aurretik eskatuta.
- San Martin eskolako jolas tokia ↑ egunero.
- Martinez de Irala ikastola ↑ egunero.
- Ipintza institutua ↑ egunero.
- Aroztegi aretoa ↑ egunero.
- Zabalotegiko txiki-txokoa ↑ egunero.
- Martokoko txiki-txokoa ↑ egunero.
- Seminarioko patioa ↑ ostiralero.
- Usondo parkea ↑ egunero itxi.
- PESAKo komunak ↑ egunero.
- Iralako komunk ↑ egunero.
- Irizar jauregiko atariko erakusketa ↑ astebukaero.

## KALEAN UTZITAKO ANIMALIAK

2012an, **44** txakur jaso dira, horietatik 38 Elurra txakurtegira eraman ditugu eta gainontzekoak beraien jabeei itzuli dizkiegu.

Azken hamabi urte hauetan Elurra izeneko txakurtegiarekin sinatutako hitzarmen baten bitartez lanean egon gara, eta kalean jasotako txakurrak Elurra txakurtegira eraman ditugu, honek emandako zerbitzua oso ona izanik.

1997an mikrotxip irakurgailua erosi genuen eta interneten bitartez REGIA erroldan kontsulta zuzenak egiteko aukera daukagu, bertan Euskadin erroldatuta dauden txakur guztiak azaltzen baitira. Guzti honek animalien jabeak topatzeko lanak asko errazten ditu.







# POLIZIA JUDIZIALA



Arlo honetan egiten den lanik garrantzitsuena prebentzioarena da. Horretarako polizia kalean ikustea da biderik egokiena, eta istiluak sor daitezkeen gunetatik aldizkako patruilak egitea.

2012an guztira 85 salaketa jaso dira, aurreko urtearekin konparatuta % 18,05ko igoera izanik. Guzti hauek epaitegietara zuzendu dira.

Bestalde 113 salaketa administratiboak jaso dira Udaleko sail desberdinetara zuzenduta. Beraz penalak eta administratiboak metatuta 198 salaketa jaso dira.



Salaketen zergatia kontutan harturik

horrela sailkatzen dira:

-Udal eraikuntzetan kalteak:	<b>9</b>
-Kalteen faltak:	<b>44</b>
-Agirien galerak:	<b>18</b>
-Ebasketa eta lapurretak:	<b>36</b>
-Atxilotuak:	<b>9</b>

Era berean epaitegi desberdinetatik zuzendutako 19 eskaerari erantzuna eman zaie, iazko datuekin konparatuta %17,39a gutxiago izanik. Bestalde epaietan bertaratzeko agenteek 16 zitazio jaso dituzte.

Dilijentzia hauek horrela sailkatzen dira:

-Partikularrei zuzendutako zitazioak:	<b>2</b>
-Etxetik jaurtiketak:	<b>2</b>
-Helbidea jainaraztea:	<b>4</b>
-Etxeko zigorra zaintzea:	<b>8</b>
- Beste batzuk	<b>3</b>

## AURKIBIDEA

<b>-Aurkezpena</b>	2-
<b>-Organigrama</b>	3-
<b>-Aurrekontuak</b>	4-
<b>-Langilegoa eta funtzionamendua</b>	
-Adinen araberako sailkapena	6-
-Ikasketen araberako sailkapena	7-
-Euskera maila	7-
-Laneragabezia	8-
-Aparteko orduak	10-
-Ekipamendua	11-
-Funtzionamendua	12-
<b>-Trafiko</b>	
-Egunerokoak	14-
-Kirol frogak eta beste batzuk	15-
-Istripuak	16-
-Isunak	18-
-Bertan behera utzitako ibilgailuak	18-
-Datu interesgarriak	19-
<b>-Obrak eta hirigintza</b>	
-Obra baimenak	21-
-Zarata neurketak	21-
<b>-Beste batzuk</b>	
-Kalez kaleko salmenta	23-
-Lurzoru publikoaren okupazioa	23-
-Galdutako gauzak	23-
-Lokalak zabaltzea	24-
-Kalean utzitako animaliak	24-
<b>-Polizia judiziala</b>	25-